

# Gure lan-hitzarmenak bertan negoziatu!

## Prekarietaterik EZ!

### Prekarietate gehiagorik ez!!!

Zapateroren Gobernuak proposatu dituen erreformak langile-jendearen lan- eta gizarte-eskubideak murriztearen ildotik doaz. Eta hala salatu genuen iazko maiatzaren 21eko greban: kapital eta espekulatzaileek sortutako krisia langileok ordainduko genuela urte askotan irabazitako eskubideak galduz.

Oraingo krisi-garaian gobernuak eta patronalak bat egin dute doikuntzak zehazterakoan. Horren ondorioz, prekarietate-maila are gorago igoko da, eta soldatak are beherago jaitsi.

### Ez langile-kaleratzea merkatzeari! Ezta prekarietatea ugaltzeari ere!

Lan-erreformaren proposamen berriak hauxe dakar:

- Langileak kaleratzeko moduak erraztu eta merkatzea. Orain arte bidegabekotzat jo izan diren kaleratzeak "objektibo" bilakatu nahi dituzte (20 egun urteko). Sustapen-kontratu mugagabea orokortu nahi dute. Horrelakoetan ere kaleratzeagatiko kalte-ordaina merkeagoa da: urteko, 45 egun izatetik 33 egun izatera jaitsi da.
- Gazte-jendearen enplegu prekarioa hedatzea, ozta-ozta Lanbidearteko Gutxienezko Soldata kobratzeko, eta enpresariek kotizatzeko beharrik izan gabe.
- Lanaldi partzialeko kontratuak sustatzea. Eta enpresariek ordutegia aldatu dezakete, oso epe laburreko aurre-abisua emanda.
- Irabazi-asmoa duten enplegu-agentzia pribatuei bidea ematea; eta ABLE/ETTek zituzten mugak ezabatzea.

**ELAk mobilizazioak eragingo ditu, gure eskubideak murriztearen aurka.  
Langile-kaleratzeak errazteari eta merkatzeari ez! Prekarietaterik ez!**

**Ez diegu utziko guri kentzen hain kostata  
lortutako negoziazio kolektiboa!**

**Borroka egingo dugu hemengo negoziazio  
kolektiboaren alde, hemengo  
langileentzakoa!**

### Hitzarmenak ostu nahi dizkigute!

Gobernuak esan du bere egingo duela CCOOen, UGTren eta Patronalaren artean, isil-gordean, negoziatzen ari den Negoziazio Kolektiboaren erreforma. Erreforma horren bidez hitzarmenak hemen negoziatzeko ahalmena kendu gura digute. Zeren bila dabilta?

- Estatu-mailako hitzarmenetan ezartzea zer negoziatuko den eta zer ez den negoziatuko lekuaren leku. Negoziazioa aldentzea langileok indarra egiteko ahalmena dugun tokietatik.
- Aukera ematea ugazabei kontratuaren prekarietatea handiagoa izan dadin. Lanbaldintzak xumetzea. Badakigu soberan ze baldintza ziztrinak jaso ohi diren Estatu-mailako hitzarmenetan.
- Ordezkaritza sindikalaren monopolioa lege bidez eskuratzeari CCOO eta UGT, ordezkaritza hori ez duten tokietan edo gutxiengoko ordezkaritza dutenetan, langileak hala erabakirik.
- Hitzarmenetan lorturiko eskubideak ezabatzeko asmoz, aurrera-eragina kentzea proposatu da. Zer dakarkigu horrek? Hitzarmenen indarraldia amaitu ostean, hutsetik hasiko da negoziazio berria.

### Hitzarmenak hemen negoziatu nahi ditugu!

Hitzarmenek alde agertu behar gara. Non eta zer negoziatu nahi dugun erabakitzea guri dagokigu. Gure lan-baldintzak daude jokoan, azken finean estatu mailako lan-hitzarmenek miseria, soldata eskasak eta prekarietatea besterik ez dakarte eta. Negoziazio-esparruak Madrilera eraman nahi du patronalak, bere onerako eta gure kalterako. CCOO eta UGT asmo horren laguntzaile aritzen dira, erregalien trukean.



# **¡Vamos a negociar los convenios aquí!**

## **¡Basta de precariedad!**

### **¡Basta de precariedad!**

Las reformas propuestas por el Gobierno de Zapatero insisten en el recorte de derechos laborales y sociales de la clase trabajadora. Así lo denunciamos en la huelga del 21 Mayo de 2009, alertando que la crisis generada por el capital y la especulación la íbamos a pagar los trabajadores y trabajadoras con la pérdida de derechos conquistados durante años de lucha.

En esta coyuntura, Gobiernos y patronal se han aliado para concretar los ajustes, aumentando la precariedad y chantajeando sobre los salarios.

### **¡No al abaratamiento del despido y al aumento de la precariedad!**

La nueva propuesta de reforma laboral plantea:

- Facilitar y abaratar el despido. Pretenden que despidos que ahora son improcedentes sean calificados como "objetivos" (20 días de indemnización por año). También quieren generalizar el contrato indefinido de fomento con indemnización por despido más barata, pasando de 45 a 33 días por año.
- Extender el empleo precario de la gente joven, con salarios que no superan el Salario Mínimo Interprofesional, y sin que los empresarios coticen.
- Fomentar los contratos a tiempo parcial precarios, pudiendo el empresario modificar los horarios con un preaviso mínimo.
- Permitir la entrada de agencias privadas de colocación con ánimo de lucro y suprimir las restricciones a las ETTs.

**ELA va a seguir movilizándose para oponerse a este recorte de nuestros derechos.  
¡No vamos a aceptar que el despido sea más fácil y barato, ni la precariedad!**

**¡No vamos a permitir que nos roben la negociación colectiva que tanto nos ha costado lograr!**

**¡Vamos a luchar por una negociación colectiva con contenidos hecha aquí y para los trabajadores y trabajadoras de aquí!**

### **¡Nos quieren robar los convenios!**

El gobierno ha dicho que asumirá la reforma de la Negociación Colectiva que negocian en secreto CCOO, UGT y la Patronal. Con la misma, pretenden quitarnos la capacidad de negociar los convenios aquí. ¿Qué buscan?

- Que sean los convenios estatales los que establezcan qué se negocia y qué no se negocia en cada sitio. Alejan la negociación de los ámbitos donde los trabajadores y trabajadoras tenemos fuerza, capacidad de presión.
- Otorgar a la patronal más precariedad aún. Buscan empobrecer más las condiciones de trabajo. Sabemos qué condiciones miserables regulan los bajos contenidos de los convenios estatales.
- Obtener por parte de CCOO y UGT el monopolio de la representación sindical vía ley en ámbitos donde carecen de la misma o son minoritarios porque los trabajadores y trabajadoras así lo han decidido.
- Con el objetivo de acabar con los derechos conquistados en los convenios, se plantea suprimir la ultraactividad. ¿Qué quiere decir esto? Quieren dejar sin efecto los artículos de los convenios cuando finalice su vigencia e iniciar la negociación desde cero.

### **¡Queremos negociar los convenios aquí!**

Tenemos que defender los convenios y el derecho a decidir dónde y qué queremos negociar. Nos jugamos nuestras condiciones de trabajo ya que los convenios estatales no traen más que miseria, bajos salarios y precariedad. La patronal, alejando los ámbitos de negociación a Madrid quiere empobrecernos y CCOO y UGT colaboran a cambio de prebendas.

